

# asko eta asko mpetuko ez



karti eta individualistak ere gustatzen zaizkit, eta bertsolaritzan gaur egun antolaketa eta taldearen eraginak asko baldintzatzen du bertsolarien ariketa praktikoa. Ez naiz sormenari dagokion ariketari buruz ari. Badirudi, lehen bertsolarien aritzea eta ibiltzea bederazkakoagoa zela gaur egun baino, eta horrek ere bere enkantua ba ote zuen.

• **Elkarte horrek pentsamolde asko batu ditu helburu komun baten bila. Kulturaren beste arloetara formula hori bideratzeko aukerak nola ikusten dituzu?** Oso zaila da. Ez nago ez etsia eta ez baikor. Kantariena, adibidez, askotan esan izan da oso bakarkako mundua dela, eta ez daukagu ez elkarterik, ez sindikaturik, ez talderik. Hori horrela da. Ona ala txarra den? Kantariek gertatu izan dena gertatu izan da beste kolektiboekin ere. Gaur egun bada joera bat elkaritzekoa, sindikatzeakoa. Artearen munduan, eta kulturaren munduan orokorki, ez dago bertsolaritzaren munduan dagoen gisako elkarterik. Leudekeenak, eta nik uste dut badi-rela, taldeak dira, normalki argitaletxeen inguruan osatzen direnak eta beren kidesasunak eta solidaritatea dutenak, eta jokamolde batzuk azpi-

«Badirudi lehen bertsolarien aritzea eta ibiltzea bederazkakoagoa zela gaur egun baino, eta horrek ere bere enkantua ba ote zuen»

marratzen dituztenak. Hori ona da. Nire adiskide idazle batek esaten duen bezala, euskal literaturan badira *eskuderiak*, automobil karreretan bezala. Idazleen mundu horretan antolaketa bat badago, baina ez orokorra, partziala baizik, argitaletxeen ingurukoa. Bestela, pinturaren, kantaren, musikaren munduan, ez dut uste talde antolatuturik badagoenik, orokorki behintzat. Ez dakit behar den edo ez. Gauzak horrela dira.

• **Ez Dok Amairu talde bat zen. Lehenak izan zineten profesionalizatzen, gainera.** Hori egia da. Gure helburu nabarmena hori izan zen, bakarka aritzea baino gehiago, talde lan bat egitea. Alde batetik, egiten zen lanari gizarte dimentsio bat emateko; eta bestetik, antolaketa praktikoari zegozkion arazo asko konpondu ahal izateko. Ez Dok Amairu talde bat

izan zen konkretuki elkarrekin lan egiteko izpirituarekin sortu ginelako; elkarrekin ibiltzen ginelako batez ere; ikuskizun garrantzitsu bat, *Baga biga higa* taxutu genuelako; eta urte batzuetan talde marka bat utzi genuelako. Uste dut Ez Dok Amairu izan dela euskal kantagintzaren barruan egon den talde egituratu garrantzitsuena. Geroztik, ez dut uste esperientzia hori berreditu denik.

• **Ez Dok Amairuk bere arazoak izan zituen hala ere, ezta?** Bukarera batez ere. Taldeak ez zuen urte asko iraun, eragin handia izan zuen gizartean, momentua ere halakoxea zelako; izpiritu bat bazegoen sormenarekiko. Uste dut lan baikor bat egin zela. Taldekideetan baziren pentsaera eta izaera aldetik desberdintasunak, eta desberdintasun horiek batez ere azkenean nabarmendu ziren, taldea urratzear zela. Istilu batzuk sortu ziren, ikuspuntu politiko desberdinak izan ziren arazo, batez ere. Horren ondorioz, elkarrekiko susmo batzuk ere sortu ziren. Azkeneko bi urteetan Ez Dok Amairuren historia nahiko iluna eta nahiko tristea izan zen. Baina justu aurreko urteetako egoera oso ona izan zen, batez ere *Baga biga higa* egin genuenean.

• **Che Guevararen omenezko kanta bat egin, eta behin bakarrik kantatu zenuen, Soraluzen. Istilua sortu omen zen jende artean. Txanogorri-txoren kanta ere egin zenuen, eta horrek ere istiluak sortu zituen, baina alderantzizko irakurketagatik. Zer gertatzen zen une haietan?** Gure baitan izaten ziren desadostasunak. Gizarteak berak ere, batzuetan, ematen zizkigun erantzun nahiko bortitzak, batez ere Euskal Herriko zenbait lurraldetan eta sektoretan. Ez Dok Amairuren ibilbidea ez zen izan kontsentsu osoz gauzatu zen bide bat. Zuk aipatu dituzun kanta horiekin eta beste zenbait gauzarekin ere gertatu ziren halako jarrera kritiko batzuk. Nik Che Guevarari kantua egin nionean, esate baterako, erreflexio askorik gabe egin nuen. Gauza sentimental bat zen, eta Che Guevara figura bat zen, gaur nik asko erlatabizatzen dudana. Orduan niri idolo bat iruditzen zitzaidan, eta akabatu zutenean, kanta bat eskaini nion. Orduan, taldeko zenbait jende esaten zidan Che Guevara ez zela gizartearentzat eredu on bat, eta kontuz ibili behar nuela. Nik nioen artista bezala eskubidea neukala nire sentimenduetatik ere hitz egiteko. Gero, kantu erotiko batzuekin ere gauza bera gertatu zitzaidan, baina ez zen gauza iraunkorra izan. Amore ematen genuen, edo moldatzen ginen. Taldeak, beharbada, eragin hori bazuen, onerako eta txarrerako. Talde kritika bat egiten bazizuten zuk egindako lan bati buruz, zuri kritika hori gustatu ala ez, barneratu eta ondorioak ateratzen zenituen.

• **Ez Dok Amairuren amaierak gaizki utzi omen zituen. Antton Valverde aipatu behar ote dugu orain?** Bai.

Horri buruz badago esaldi bat elkarriketa batean Benito Lertxundik botea, niri oso argigarria iruditu zitzaidana. «Taldea desegin zenean zer gertatu zen zure baitan?» edo antzeko zerbait galdetu zioten. Benitok oso modu grafikoan azaldu zuen: «Goiz batean esnatu nintzen eta konturatu nintzen zenbait urtez talde batean aritua nintzela, eta orain bakarrik nengoela, abiapuntu berri horretatik abiatu behar nuela nire lana egiten jarraitzeko». Uste dut horixe gertatu zitzaiola. Nik suertea izan nuen. Antton Valverderekin harremana banuen, baina artistikoki elkarrekin lan egin gabeak ginen. Kantaldiak elkarrekin ematea pentsatu genuen, bertso zaharrei buruzko lan bat ere egin genuen, eta Txirritari buruzkoa, eta zenbait urtez elkarren lagungarri izan ginen. Hala izan zen, 1978 urtea arte. Urte hartan, kantatzeari utzi genion Anttonek, nik eta Lourdesek.

• **Baina itzuli egin zinen, eta ez zen azken aldia izango. Zeu ere plaza gizona ote zaitugu batez ere?** Bai, eduki dut barruan har hori. Baztertuta egon nintzen urte haietan guztietan ez, egia esan. 1978an utzi nuen, beste lan batzuetan aritu nintzen, gero Diputazioan [Gipuzkoakoan] sartu nintzen, eta kanta jarraitzen nuen, baina entzule bezala. Baina 1987an Diputazioa utzi nuenean, nire bizitza pribatuan berriro kokatu nintzenen, kantatzearen harra barruan nuen berriz ere. Antton Valverdek eman zidan berriz ere eskua. Egia esan, barruan nituen men batzuk ateratzea eta berriz ere martxan jartzea izan zen niretzat itzulera hori.

Egia da badudala halako joera bat. Ez dakit protagonista izan nahia den, banitate den, histrionismoa den, mezulari lana egin nahi izatea den edo zer den. Uste dut oholtza gainean ibiltzen den orok, batez ere bakarka ari den kantariak, baduela barruan zerbait horretara eramaten duena.

• **Ez Dok Amairuren garaitik gaur egunera asko aldatu da kantarien eta publikoaren arteko harremana. Kate hori eten ote zen ere esan zen inoiz. Zer uste duzu zuk?** Urte batzuk egon ziren zailak kantagile kantariarentzat. Bazirudien mundu hori bukatzear zela, talde musikak eta beste joera estetiko batzuek hartzen zieten tokia. Baina uste dut une hura gainditu zela, eta gaur egun ikusten dudana panorama irekiagoa da. Ikusle multzoa berriz ere nahiko plurala bilakatu da. Ez nuke esango kantagile kantarien publikoa izugarri ugaria denik, baina behar adinako publiko bat badutela uste dut, euren lanari zentzu bat emateko adinakoa.

• **Zure poemak kantari horietako bartzuen ahotan entzun izan ditugu. Zer dio Lete poetak Lete kantariari eta kantatuari buruz?** Bi gauza esan behar ditut, eta zintzotasun osoz, gai-